

2011KO MARTXOAK 3

3 DE MARZO DE 2011

ORGANOA: UDAL BATZARRA

ORGANO: AYUNTAMIENTO PLENO

BATZARRALDIA: EZ OHIKOA

SESION: EXTRAORDINARIA

TOKIA: UDALETXEKO OSOKO BILKUREN ARETOA

LUGAR: SALON DE PLENOS DE LA CASA CONSISTORIAL

EGUNA: 2011KO MARTXOAK 3

DIA: 3 DE MARZO DE 2.011

HASIERA ORDUA: 9:00

HORA DE COMIENZO: 9:00

LEHENDAKARIA: Iñaki AGIRREZABALAGA ALKORTA.

PRESIDE

ZINEGOTZIAK: BERTARATUTAKOAK

CONCEJALES: ASISTEN

Andoni ETXANIZ OSA
Maria Eugenia ARRIZABALAGA OLAIZOLA
Lide AMILIBIA BERGARETXE
Manuel ZUBIA ARTABE
Pilar ETXABE IRIONDO
Joseba Josu AZPIAZU AZKARRAGA
Nerea EPELDE AZKUE
Emiliano CABAÑAS GONZALEZ
Paloma HEREDERO NEGREDO
Cristina FORCADA UNANUE
Aitor LEIZA ALBERDI

EZ DIRENAK BERTARATU:

NO ASISTEN:

Unai MANZISIDOR ANDONEGI

IDAZKARIA: GORKA URGOITI AGIRRE
SECRETARIO:

Alkate jaunak bilera eratutzat Se da por constituida la sesión por
ematen du. el Alcalde-Presidente.

ALKATE-LEHENDAKARIA (EA):

Gaur ez ohiko pleno honi emango diogo hasiera, gaur martxoak hiru, puntu
bakarra dagoelarik eztabaidatzeko:

**UDAL WEB ORRIARI BURUZKO ESKAERA, EAJ-PNV,
ALDERDI SOZIALISTEKO UDAL TALDEKIDEAK ETA PILI
ETXABE ZINEGOTZIAK AURKEZTURIKO PROPOSAMEN**Ari
dagokiona, bateren batek proposamen hori defendatzeko dago, M.
Eugenia,

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.(EAJ-PNV):
Irakurriko dut,

Zumaiako Eusko Alderdi
Jeltzaleko eta Alderdi Sozialisteko
udal taldekideok eta Pili Etxabe
zinegotziak, 85/7 Udal
Erregimeneko Oinarrizko Lege
Arautzaileak bere 46-2 artikuluan
ezarritakoaren arabera mozio
honen edukia tratatuko duen Ez
Ohiko Udalbatza Osoko Bilkura
egiteko eskaria luzatzen dugu.

Azken honetan Zumaiako Udal
Gobernua osatzen dutenen aldetik
erabat desagokitzat jotzen ditugun
jokaeren lekuko gara

Zumaiako Udalaren web orri
ofiziala behin eta berriz helburu
eta mezu alderdikoiak zabaltzeko
erabiltzeko ohitura hartu dute:

Los concejales de los grupos
municipales de EAJ-PNV y
PSE-EE junto con la concejala
no adscrita Pilar Etxabe
presentamos, en aplicación del
artículo 46-2 de la ley de Bases
de Régimen local la solicitud de
la convocatoria de un Pleno
Extraordinario con el objeto de
tratar el contenido de la
siguiente moción.

Venimos siendo testigos de
actitudes que consideramos
absolutamente inapropiadas por
parte de los componentes del
gobierno municipal.

Los miembros de la junta
local de gobierno han adquirido
la costumbre de utilizar la web
del Ayuntamiento de Zumaia

zumaiar guztiona den erakunde baten web gunea, zumaiar guztion diruarekin ordaindutako baliabide pertsonal zein teknikoak erabiliaz eta, are larriagoa dena, botatako gezur, manipulazio, gehiegikeria eta irainei zumaiar guztiona izan beharko lukeen udal erakundearen izaera baliatuz itxura “ofiziala” eman asmoz.

Horrela, honen moduko titularrak eskaintzen dituzte udal webgunean:

“kontu epaitegiaren arabera udal gobernua errotik moztu ditu aurreko legegintzaldietako faboritismoak” edo “EAJ eta PSE-Eek alderdien interesak zumaiarren aurretik jarri dituztela salatu du udal gobernua”.

Besteak beste propaganda partidista eta “autobombo” alderdikoitik haratago doazten hainbat gezur eta irain botatzen dituzte web gunean inolako lotsarik gabe. Adibidez, *“inbertsioetarako 11,7 miloi bideratzeko asmoa genuen”*, aurrekontuetan 421.000 euro besterik gordetzen etzituztelarik inbertsioetarako. Edo *“auzoak biziberritzeko proiektuak abian jartzea espero genuen”*. Non? Guri botatzeko aurkeztu ziguten aurrekontu egitasmoan ez

para lanzar mensajes indudablemente partidistas: una página web que es informativa para la ciudadanía, viene siendo utilizada de un modo espurio valiéndose de recursos técnicos y humanos pagados con el dinero de todos y, lo que es aún peor, con la intención de proyectar mentiras, manipulaciones, excesos verbales y calumnias con la apariencia de “oficialidad” que se supone a una institución pública como el Ayuntamiento.

De este modo han publicado en la página web municipal titulares de este calibre: “el tribunal vasco de cuentas conduce que el Equipo de Gobierno ha eliminado los favoritismos de las legislaturas anteriores” o “el Equipo de Gobierno denuncia que el PNV y PSE-EE han antepuesto los intereses de partido a los intereses de Zumaia”

Además, han publicado en la web sin ningún reparo, mentiras que van incluso mucho más allá de lo que sería propaganda o “autobombo” partidista. Por ejemplo, hablando del proyecto desestimado de presupuesto, “se destinarían 11,7 millones de euros a la inversión”, cuando en el documento no guardaba más de 421.000 euros para inversiones. O “se pondrían en marcha varios proyectos en los barrios” En los presupuestos para 2011 que nos presentaron a

behintzat.

Gezurretaz haratago, beraiek aurkeztutako aurrekontu proposamena onartu ez dugunoi, “transfugismoa”, “maltzurkeria” “lotsatuta jardutea”, “Zumaiari rnasaillekoa eman izana”, “txotxongilo modura jardutea”, EA-k eta ezker abertzaleak elkarrekin duten akordioak beralen aburuz sortu omen duen “itxaropena operazio zikinez zapuztea” eta antzeko astakeriak egozten dizkigute.

Non ikusi da horrelakorik? Eta oraindik ere okerrago, non ikusi da horrelakorik erakunde baten komunikazio tresna baliatuz? Eusko Alkartasunak eta ezker abertzaleak, honetan ere, Zumaia gainontzeko leku guztietatik berezitu dute. Gure ustetan, zumaiar guztiona den Udalaren duintasunaren kaltetarako.

Hori horrela, honako hau aurkezten diogu Zumaiako herria bere osotasunean ordezkatzeko duen Bilkura honek aintzat har dezan:

1.- Udal web-gunea Udala herritarrei hurreratzeko tresna dela deritzogu; udal izaerako edo, oro har, herriko informazio eta berriak zabaltzeko. Inondik inora ez edozein alderdi politikoren interesen morroitzan egoteko eta are gutxiago beste aukera politiko zilegi eta demokratikoen aurka

votación, desde luego no se apreciaban tales proyectos.

Y más allá de las mentiras, a quienes no hemos votado a favor de sus presupuestos nos acusan de “transfuguismo”, de “actuar de mala fe”, “de estar avergonzados con lo que hicimos”, de “dar una patada al pueblo de Zumaia”, de ser “marionetas”, de “haber recibido una llamada a última hora” instándonos a votar en contra para “intentar bloquear la fórmula de acuerdo entre EA y la izquierda abertzale”, de haber cometido “una emboscada” y otra serie de necedades.

Y lo que es aún peor, se valen de una herramienta institucional para hacer campaña electoral partidista, lo cual consideramos gravísimo. La izquierda abertzale y EA, también en esto han venido a diferenciar Zumaia del resto, en detrimento de la dignidad del propio Ayuntamiento.

Siendo así presentamos los siguientes puntos a la consideración del Pleno que representa a la totalidad de los zumaiarras:

1.- Consideramos que la web municipal es una herramienta para acercar el Ayuntamiento a los ciudadanos/as de Zumaia, o en general, para difundir información del municipio. De ninguna manera es un recurso que deba estar supeditado a los intereses de cualquier partido

ekiteko.

2.- Gogor salatzen dugu udal webgunea Iñaki Agirrezabalaga alkatea eta Andoni Etxaniz alkate ordearen edo bien alderdi politikoen, interes elektoralisten zabaltze-bide bezala erabiltzea.

3.- Iñaki Agirrezabalaga eta Andoni Etxaniz-en eta hauen taldeen jarrera baldarra gaitzesten dugu, helburu sasi-politikoak lortzeko egun dituzten ordezkariak karguetaz baliatu direlako, eta bide batez esijitzen diegu hemendik aurrera gehiegikerietan erortzerakoan, alde batera utz dezatela herri-ordezkariak izateak eskaintzen dien estaldura eta itxuragabeko jarrera hartzeak gogoko badituzte, gutxienez, izen propioan hitzegin dezatela eta ez guztiona den udalaren izenean udal tresnak horretarako erabiliz.

4.- Mozio honen eduki osoa, aurre azalpenak barne dituelarik, bi hizkuntzetan www.zumaia.net web gunean zintzilikatua izango da, aurrealdean, ondo ikusteko moduan, gutxienez hilabete oso batez mozioa onartu eta hurrengo egunetik.

político y mucho menos para atacar a otras opciones políticas legítimas y democráticas.

2.- Denunciamos sin paliativos el hecho de que el alcalde Iñaki Agirrezabalaga y el teniente alcalde Andoni Etxaniz, o los partidos políticos a los que pertenecen ambos, utilicen la web municipal como vía para difundir mensajes con interés electoralista.

3.- Rechazamos la actitud de Iñaki Agirrezabalaga y Andoni Etxaniz, y la de los grupos políticos a los que pertenecen, por haberse prevalido de los cargos públicos que en estos momentos detentan para hacer campaña partidista con muy mal estilo; y les instamos a que, en adelante, cuando pretendan incurrir en abusos de este tipo, no lo hagan instrumentalizando la cobertura que les ofrece la representación institucional. Si pretenden seguir ejerciendo cierta afición a posicionamientos absurdos, que lo hagan en nombre propio y no utilizando para ello recursos que por ser municipales, son del pueblo.

4.- El texto completo de esta moción, incluyendo la parte expositiva, será colgada en la portada de la página www.zumaia.net, en un lugar bien visible, en euskara y castellano, por lo menos durante un mes completo desde el día siguiente de su aprobación.

Eta hori da, guk, Eusko Alderdi Jeltzaleko Udal taldekideok, Alderdi Sozialistako ordezkariak eta Pili Etxabe adskrizio gabeko zinegotziak aurkeztu genuen mozioa eta pleno honetarako eskaera,

Kontua da hemen gaudela, ostegun batean, goizeko bederatzietan, Alkateak jarritako ordu eta egunean; Alkateak bere buruarekin, ezin baidugu esan bere taldearekin -bakarra baita udaletxe honetan- eta berarekin batean Udal Gobernu osatzen duen taldeak, Ezker Abertzaleak, ondo kalkulatu eta diseinatutako eguna eta ordu honetan, non zitekeena edo probableena izango zen oraintxen irakurri dudan mozio hau sinatzen dugunetik bateren batek ezin etorri izana, gertatu den modura. Horrek ematen digu, oraintxe irakurri dudanetik aparte, Udal Gobernu honek daukan kalitatearen neurria. Ahoa betetzen zazue, urteetan zabiltzate transparentziarekin, partaidetzarekin... zeurontzat, noski, begirunea aldarrikatuz; bestean, noski, bestean formak salatuz. Eta udaletxea hartu zenuten eta ez zaizue asko kosta, ez duzue denbora asko behar izan, Udaletxea zeurona balitz bezala jokatzeko. Inolako... inolako begirunerik gabe, eta okerragoa dena, zeurok hainbeste -ustez- ereiten duzuen diskurtso, ampuloso, eta begibistakoa denez, huts horren kontra eginez.

Udal web gunean jartzen joan zaretenak, -ez dakit ezta merezi duen ere irakurritakoetatik haratago gehiago komentatzea-, zeurona balitz bezala; zeurona bakarrik balitz bezala, eta beste gainontzekooi... Gauza bat da - eta gaizki egon litzateke ezta?- herriaren baliabideak autoboborako erabiltzea; zeuron marabilak kontatzeko eta jendea ba... egiten duzuen kudeaketa "fantastiko" horren baliora konbentzitzeko erabiliko bazenute, tira! Baina hori baino askoz okerrago da egiten duzuen: erabiltzen duzue ofizialtasun itxura, eta erabiltzen duzue herritar guztion diruarekin ordaindutako tresna bat inolako lotsarik gabe eta inola neurririk gabe, gainontzekoak iraintzeko.

Eta horixe da egiten duzuen. Klaro, batek ez ditu noski aztertu inguruetan diren erakunde izaerako web gune guztiak! Baina orain artean ezagutu ditugun horietan esan behar guk behintzat ez dugula inoiz ezer antzekorik ikusi, ezer antzekorik ikusi; eta egiten dituzuen gauza horiekin eta baita gaur goizeko deialdi honekin ere, beno.... nire ustez ikusi nahi duen edozeinentzat ondo argi usten duzue nolakoak eta zer zareten, eskerrik asko eta besterik ez.

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Bueno, ba... nire aldetik behintzat erantzuna emateko garaian, zuek planteatzen duzuen hemen, da kontu auzitegiak emandako berrien inguruan, -cortina de humo- bat zabaltzea. Zuk aurkezten duzuen mozio honen bidez, nahi duzue desbideratu

informazioa berez guk emandako informazioa eta informazio hori beste norabaita kanalizatu eta begirada beste nonbaiten jarri.

Web guneari dagokionez, web guneak egiten duena da Udal Gobernuak emandako prentsaurreko batean jasotako hitzak adierazi eta informazio horri dagokionez, eta ondo irakurtzen baldin baduzue, informazio hortan dator, hain zuzen ere prentsaurreko hortan bai Andoni Etxanizek eta bai ni, neuk, jasotako hitzak agertzen dira entrekomilatuta eta horixe bakarrik falta zen, guk prentsaurreko batera deitu kazetariei, kazetariak hori helarazi eta publikatu eta gure web gunean informazio hori prentsaurrekora deitu ondoren, ez adieraztea.

Guk dakigu, Udal Gobernuak daki, zer nolako politika komunikatiboa eramaten duen aurrera eta Udal Gobernuak daki zer gauza esaten dituen, eta hori bakarrik falta zen, oposizioak Gobernuari esatea zer esan behar duen, nola esan behar duen eta non esan behar duen.

Eta irainei dagokionez gogoratu nahiko nuke, irainik ez dugula inoiz esan eta irainetan aipatzen denez eta hor M. Eugeniak bukaeran aitaturako esaldiarekin bat eginez, aitutzen da zer nolakoak garen garbi ikusten dela.

Ba... irainei dagokionez diozue eta hasieran ere esan duzu Alkateak deituriko eta bere Udal taldeak, baina Udal taldeak ez, bakarrik dagoelako, aitutzen duzue iraini dagokionez transfugismo hitza, gogoratu nahi dizuet zuek ondo dakizutelako edozein bilatzailetan internet-eko edozein bilatzailetan –transfugismo- hitza jarri ezazue eta ikusiko duzute zer gertatzen den eta bateren baten islada badela, hain zuzen ere udaletxe hontan, nik hori bakarrik eskatzen dizuet.

Beraz, ari garena da deskribatzen egoera bat besterik gabe; eta gu aprobetxatzen baldin bagara esan duzuen bezala ez dakit ze egoerataz, zuek aprobetxatzen zarete, hain zuzen ere beste egoera hortaz eta horrek demostratzen du bakoitzaren kalitate demokratikoa non dagoen, zeren eta itunak firmatzen dira firmatzen diren tokian esanaz, segun eta ze praktika.... ze pertsonak ze praktika aurrera eramaten duen, horrekin ez dela ezer egingo baina gero hori itunetan geratzen da eta praktikara ez da eramaten.

Eta bukatzeko, aitatu duzu guk ez ohiko plenoa egiten dugula ordu hontan, neuk deitu dudalako eta egun hontan. Gogoratu nahiko nizuke, ohiko pleno batean ekarri genuela guk hona gai hau, zuek eta eskubidea zeneukaten horrela nahi ez zenutela eta, beste egun batean eta bereziki egindako pleno batean tratatu nahi zenuten puntu bakar bezala eta zuen eskubidea den bezala neure eskubidea Alkate bezala da, jartzea eguna eta ordua eta beraz, zuek daukazuten eskubide berbera baliatuz, neuk ere nire eskubideak baliatzen ditut jakiteko ze ordutan eta zein egunetan jarri behar den plenoa, nire aldetik, hori , beste bateren batek,

Talde Mistoa, gero Emiliano eta gero Aitorrek ere bai,

Venga ba...

ANDONI ETXANIZ OSA JNA. (TALDE MISTOA): Egunon, Lehendabizi galdera bat, Zer esan nahi du ampuloso? Ampuloso hitzaren esanahia, argituko zenidake, faborez,? M. Eugenia, es ke ez dut ulertu, ez dakit zer esanahi duen, benetan.

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.(EAJ-PNV):
(Mikronorik gabe)

ANDONI ETXANIZ OSA JNA. (TALDE MISTOA): Bai... es ke ez nekien zer esan nahi zuen.

Esan nahi nuena, nik behintzat, bai Iñakik eta bai nik eman ditugun prentsaurrekotan irainik ez dela egon eta bai Iñakik eta bai nik Gobernu baten izenean hitz egin dugula eta Gobernu horren izenean guk egin ditugun adierazpenak Udaletxearen web gunean ere lekua behar dutela, beste edozein Gobernu eta beste edozein Erakundeetan gertatzen den bezalaxe, zeren, zuek gaur hemen aurkezten duzuten mozioa ez da betetzen milaka eta milaka erakundeetan eta zuek eramaten dituzuen ehundaka eta ehundaka erakundeetan, Gobernu baten hitzak Udal web gunean agertzea, ohikoa da, -entrecomilatuta- dago noski, gure hitzak dira eta Gobernuaren iritzia da, baina iritzi politikoak dira eta ez irainak, inondik inora, nik ez dut irain bakarra aurkitzen, iritziak besterik ez,

Non ikusi da, horrelakorik? Egiten dugu galdera, ez? eta galdera potoloa baina gero ondoren esaten dugu, bueno... inguruko web guneak ez ditugu begiratu horrela funtzionatzen duten edo ez, jakiteko, orduan... horrelakorik ikusteko ba... begiratzea ere ondo etortzen da, baina gure ustez, horrelakorik gertatzen da ba... leku asko eta askotan lehen esan dugun bezala, mozioa zuek aurkeztu duzute, hala da, eta mozioa tratatzeko esfuertzoa guztiok egin behar dugu, zeren, hemen Gobernu kide guztiak gaude eh? eta gure agenda arazoak ere eduki, badauzkagu, eta joan den astelehenean edo joan den plenoan ba... tratatzeko aukera zegoen eta ez zen tratatu nahi izan, eta bueno.... guk ere gure agenda begiratu eta nola dauzkagun ikusita ba... zuek deitutako mozio bati ere bere lekua egin behar zaio eta goizeko bederatzieta ez ohiko pleno bat, ez ohikoa nahi zenutelako, ba... perfektamente egin daiteke, baina normaltasunetik ba... polemika ateratzeko ba... bueno, ba... ateratzen duzute eta ondo dago, baina gure ustetan behintzat ez ohikoa nahi zenuten eta ez ohiko pleno batean gaude.

Kontua da baliabide publikoen erabilera desegokia ere salatzen duzutela, gogoratu nahiko nuke Diputazioak duela gutxi kontratu bat atera duela, bere kudeaketaren inguruko komunikazioa egiteko Plan 2007-2011; 200.000 € baino gehiago, horren dibulgaziorako, ez?

Zer egin dugu dibulgatzeko? 200.00€ baino gehiago Gipuzkoar guztiek ordaindutakoak eta bueno... hemen lekzioak ematera etortzen dira balibide publikoak nola erabili behar diren esanaz, baina guk, baliabide publikoak erabili ditugu beste zuzentasun batekin eta beste... nik uste dut elegantzi batekin, zergatik... gogoratu beharra daukat baita ere Zumaiako Paolaren garaiak; Zumaiako Paolaren garaiak guztiok geneukan iritzia emateko aukera, orain bezala ez dut esango, iritzia emateko aukera bai, baina orain iritzia eman aurretik aldizkarian zertaz hitz egin behar dugu, badakigu guztiok eta esaten dugun hori behintzat alderdian aurretik zer etorriko den jakin da esaten dugu, baina sekula gertatuko ez dena gurekin da... guk beste alderdien iritzia irakurri eta besteen alderdien iritzia irakurri ondoren Zumaiako Paol berdinean gure atalean erantzutea, eta hori gertatzen zen! o sea... hemen ohituta gaude komunikabideak nahierara kontrolatzen, komunikabideak gure zerbitzura jartzen, ikusi besterik ez dago zer egiten duten batzuk EITB-rekin, zer egiten duten beste batzuk komunikabideak ixten, baina kontua da hemen oposizioan zaudetela eta oposizioko alderdiak Gobernuko Alderdiak bezalaxe, Ezker Abertzaleak bere prentsa, oharra eta aurrekoak ere egiten dituelako ba... komunikabide ohikotara jo behar du, baina Udal Gobernuak Web gunean lekua edukiko du, noski, Udal Gobernuak delako, gu gara Udal Gobernuak eta zuek oposizioa zarete eta Alderdi Politiko bezala gu ere komunikabideetara jotzen dugu eta hor daude gure prentsaurrekoak;

Irainetaz hitz egiten dugu, duela gutxi Burlatako Udaletxean, ez ohiko pleno bat egin zuten, joan den larunbat goizean, baita ere oposizioko hiru alderdiek deituta, hiru alderdi horiek deitu zuten, Alkateak hamabost egun zituen deitzeko, ez zuen deitu; Idazkariak deitu behar izan zuen, herritarrak ere han ziren, eta badakizute nola bota zituzten herritarrak Udal Plenotik? Burlatako Alkateak –hijos de puta- -hijos de puta- fuera de aquí.

Irainak entzun nahi baldin baditugu, beste udaletxe batzutan eta beste Alkate batzuri begiratu eta ez udaletxe hontan hain zuzen, Udaletxe hontan inongo irainik ez da izan, eritzi politikoak izan dira, guztiak, horregatik gu... guri ere iruditzen zaigu ba... denetan fondoari edo heltzeko gogorik ez dagoela jarri diren debateak egiteko borondaterik ez dagoela eta mezulariaren kontra jotzen dugula, mezuan zer esan gutxi daukagulako, gure ustetan egin ditugun adierazpen denak egin beharrekoak ziren, herritarrari gure eritzia eta informazioa eman diegu eta esandako guztietan ba... berretsi egiten gara eta esan beharrekoak zirela iruditzen zaizkigu, horretarako gaude eta hemen ba... gure eritzia mahai gainean jartzeko eta ez oposizioak esaten dizkigunak ba... guk ondoren esateko, guk, gure eritzi propioa baitdakugu, eskerrik asko

ALKATE-LEHENDAKARIA (EA): Emiliano,

SR. EMILIANO CABAÑAS GONZALEZ (PSE-PSOE): Buenos días a todos,

Parece ser que le toca ahora hablar al malo de la película, y bueno pues el malo está un poco de mala leche por así decirlo, porque es cierto que las páginas webs se utilizan como –autobombo- nadie lo va a discutir, pero desde luego una página web es municipal, la gestiona la comisión de Gobierno, pero no la utiliza y encima de mala fé para insultar y meterse con la oposición, porque las páginas webs municipales de Diputación, de Gobierno ó de quien sea, son sistemas de información y de acercamiento de la gestión municipal hacia el ciudadano, nunca de insultar a la oposición en ningún momento, porque no son dueños la Comisión de Gobierno de la página web, son gestores de la página web, no dueños de la misma.

Otra cosa es que éso mismo se hubiera hecho en un periódico ó de otra cualquier forma en la cual estais muy libres de hacerlo y la persona que recibe ó que sufre esa situación está muy libre también de actuar en consecuencia, pero nunca en la página web; éso sí que es actuar de mala fé cuando hablais vosotros de mala fé, ahí sí demostrais la mala fé, aunque yo me figuro que cuando se lo decís a los demás lo decís por propia experiencia, que por éso lógicamente pues se llega a decir cosas, cuando se tiene la experiencia real de lo que se está diciendo, hablais de marionetas también en el tema de la página web y demás, pues yo no sé quien es el más marioneta y aquí lo habeis comentado cuando determinados grupos tocan a la puerta bailais al son que toquen, dá igual, pero lo haceis, sin ningún tipo de miramientos y sin ningún tipo de escrúpulos, a los demás pues les toca esperar a que acabeis de bailar y a ver si queda algo todavía de música por ahí suelta, que raramente ocurre.

Pero como lógicamente lo mismo que nosotros tenemos derecho y lo hemos, digamos, no aprovechado porque no se puede aprovechar uno en derecho, no es un aprovechamiento sino es una utilización de un derecho que tiene el convocar este pleno extraordinario para tocar este tema.

Vosotros es cierto, también, como Alcalde que tienes la prerrogativa, derecho de determinar qué día y a qué hora, pero creo que en Zumaia los únicos plenos que se han hecho por la mañana y a esta hora, ni siquiera a esta hora son los de Constitución, los demás han sido por la tarde, alguna intencionalidad tendrá el tema? O hay alguna explicación concreta que diga que tenía que ser hoy porque mañana viene el diluvio universal? o algo así, y ya no por el día, sino por la hora y demás, o sea que... volvemos a insistir en el tema de la mala fé.

Hablais de desviar información, no sé qué tipo de información, podemos desviar si cuando muchos de los casos lo que estamos haciendo y yo en mi caso, por ejemplo, es sobre el tema del informe de Fiscalización en algunos

casos que luego habeis dicho en algún otro momento, que ha sido malas interpretaciones, joe! Lo que no puede ser es que se interprete una cosa mal y la otra ni siquiera se recuerde que está escrita en ese mismo informe, puede haber una mala interpretación pero en general del informe, todo el contenido del mismo, no sólo aquello que interesa cuando se lanza a la calle con su..... puede ser una mala información y todo el resto del contenido se obvia, se olvida y en todo caso cuando lo dicen los demás, éso no es así. Pues yo creo que sí que lo es, porque además está recogido y se puede comprobar en cada una de las páginas que contiene el mismo. Son muchos los temas que podríamos estar hablando aquí y daría para un buen rato, pero yo no creo que sea el caso, pero uno de los más llamativos, yo no sé de dónde habeis sacado y si éso no es mentir, a lo mejor sin intención, para qué lo vamos a decir de otra manera, de que el presupuesto contaba con 11,7 millones de euros para el capítulo de inversión, la verdad que... o estabais aprobando un presupuesto que el resto del Ayuntamiento desconocía ó no lo entiendo, porque no aparece ese dinero por ningún lado, puesto que no lo había, porque estaríamos hablando del completo de la totalidad del presupuesto de Zumaia y éso no es así, o sea que una mentira, digamos de alguna manera engordada sin que se quiera llegar a ser mentira cuando se habla, claro, de los posibles... ahí se supone que estarán metidas las posibles inversiones de Zumaia Lantzen, si es que se llevan a cabo a lo largo de no.... de este mandato que le quedan dos meses sino del próximo y esperemos que se acabe y desearíamos que se acabaran en ellos, no? Hablabais incluso del tema.... estais diciendo que hemos dado una patada porque se iban a multiplicar los servicios sociales, de dónde? De qué manera? Para éso se necesita capital y se necesita dinero, y no lo había, ni lo hay en el programa de presupuestos, dónde se van a multiplicar los servicios sociales? Cuáles? Porque habrá que explicar haber cuales son aquellos servicios sociales, que se van a multiplicar cuando no se pone dinero en el programa de presupuestos?, según parece sí se iban a multiplicar. Son muchas más cosas en las cuales yo sigo insistiendo en el tema del Frontón, aunque le parezca... pueda parecer mal a algunos que el frontón no se haga como se está haciendo, sigo todavía esperando algunos informes para actuar en consecuencia y cuando los tenga en mi mano, veré si tengo que actuar ó no tengo que actuar de la manera que lo cree más conveniente pero sigo diciendo y sigo insistiendo que ha sido a espaldas de este Ayuntamiento, aunque se me dice que ha sido aprobado en una Comisión en la cual yo no estaba presente y por lo tanto no puedo decir que no, hay informes negativos por parte del propio urbanismo, donde dicen que no es adecuado llevar a cabo éso, sigo insistiendo en que incumple el código Civil y sigo insistiendo que se actúa a presión de determinados grupos, cuando importa muy poco que las viviendas que van a quedar bloqueadas

detrás de ese muro, no se puedan ni siquiera vender porque... aunque... ó de lo contrario no sé si es la parte, la verdad es que éso sí que ya no lo sé, porque no estoy ahora con esa idea en la cabeza y no sé exactamente, pero aunque sean de las de realojo, les estamos volviendo a obligar a tener las mismas condiciones por lo cual se ha hecho toda la obra de mejora de la calidad de vida del propio barrio, metidos detrás de un muro a menos de tres metros, pero como lo pide un grupo hay que atenderlo, es igual... luego se nos achaca de que se había conseguido el tema de la suficiencia económica de Zumaia Lantzen, pues ese gasto vá a cargo de aumentar el déficit de Zumaia Lantzen, entonces cómo vamos a conseguir esa eficacia ó esa cuestión, digamos, poder conseguir el nivel económico de Zumaia Lantzen, si cuando a espaldas se hace otro gasto que va directamente a aumentar el déficit de Zumaia Lantzen, creo que son cantidad de cosas las que se han ido desgranando y diciendo a cada uno de estas cosas, a mí mismo se me dice que estaba acorbadado, es la primera vez en mi vida que hubiera estado acorbadado, porque creo que para mí como lógicamente cuando se viene de donde viene te puede sentar bien ó te puede sentar mal, en este caso no me molesta lo más mínimo, porque sé de resobra la intencionalidad que tiene, pero no la realidad de la cuestión,

Ni yo he recibido nada de ningún tipo, de nadie, ni de partido, ni nadie, es más si podeis preguntarlo tranquilamente, preguntaros a ver si saben exactamente lo que ha ocurrido en los diferentes plenos, y os dareis cuenta donde os habeis metido y el fracaso en la cual vais por esa vía.

De todas las maneras, si hoy se pierde esta moción y no retirais de la página web, el tipo de declaraciones que existen, pues bueno... también nos queda todavía la vía judicial si llegara al caso, para hacer cumplir lo que supone y lo que es una página web y el respeto que se merece los unos a los otros, la oposición al Gobierno y el Gobierno a la oposición que en este caso no se ha respetado para nada y lo único que ha habido es actuaciones en base a sus obligaciones ó a su representación, actuaciones políticas que no creo que de mi boca en concreto y de ninguno de los demás salvo la vuestra haya salido ningún tipo de insulto hacia nadie, ni personal, ni de grupo, otra cosa que no podeis vosotros decir lo mismo, con lo cual si no lo quereis hacer y se pierde no lo hagais! vosotros sereis responsables de cada una de las cuestiones que tengais que ser y yo seré de las mías, por lo tanto, no voy a insistir más en el tema, pero desde luego que quede bien claro que aquí los únicos que estais insultando y mintiendo y aprovechando de una situación que no teneis derecho a ello para nada, porque como he dicho anteriormente sois gestores que no dueños de la página web sois vosotros,

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Aitor,

AITOR LEIZA ALBERDI JNA. (ARALAR-ALTERNATIBA): Nik uste dut, beste gai batetaz hitz egitera etorri garela hona, uste dut eh?

Web orriko erabilerataz hitz egitera etorri garela uste dut, orduan hori esan da eta berriro harirari etorrita nik uste dut mozio honen idazteko era, nire ustez ez dela egokiena, hori bat,

Gero bestea, nahiz eta aldaketa batzuk eskatzea web honen erabileraren gainean, nik soluzio erraza bilatzen diot honi, eta nire ustez partido politikoen linkak jarriz gero, bakoitzak bere huekoa edukiko zuen web orri hortan,

Oso bitxia da, nola eskatzen ari den PNV eta... bueno... eskaera hau egin dutenak baina beraiek badituzte kasu berdintsuak beraiek Gobernuan daudenean, hau da, PNV-k Orion gauza berdina egiten ari da eta PSOE Eibarren gauza berdina egiten ari da, orduan, ondo iruditzen zait gauza horiek eskatzea, baina lehendabizi bakoitzak bere buruarekin hasi behar du, nik ez daukat ezer gehiago esan beharrik, porque niretzat debate hau nire ustez alferrikakoa zen, bueno... ez dut hitz egingo gehiago, eh?

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA): Bueno... beste ez dakit bateren batek, Pili, bukatzeko

PILAR ETXABE IRIONDO AND. (INDEPENDIENTEA): Bai egunon, nik mozioa suskribitzen dut, web gunearena ez naiz asko sartuko hortaz, ze... ia esandakoa esanda dago, baina egia da, nik ere esaten dut, hori izan beharko lukeela notiziak eta informazioa emateko eta ez partidu batek edo Gobernu batek ba... bueno ba... bere politika egiteko erabili behar duena.

Gero ari zarete transfugismoaz hitz egiten eta hemen transfugismoa erabiltzen da bakarrik aldeko botua..... kontrako botua jasotzen duzutenean, aldeko botua jaso ezkerre eta hemen transfuga bakarra, bakarra dena Alternatiba da eta ez ni, eta beti hitz egiten duzute nitaz, eta ni ez nintzen joan inora, ni ez nintzen joan inora! O sea... zuek bota ninduzuten eta ni gelditu nintzen bertan behera hortxen, baina inora joan gabe, orduan ni transfuga? Ez naiz; Transfugismoa da alderdi batetik bestera joaten dena, hori puntualizatuta eta ni ez joan wikipediara eta ez inora ere, eta gero ZumaiaZu,

ZumaiaZu ari zarete, ni hemen pleno hontan ekarri ditut bi aldiz nire eskubide urraketak egiten ari zaretela, behin eta berriro.

Ni ZumaianZu Aldizkarian ez daukat aukerarik ezertxore idazteko, orduan zuek hain demokratak izanda,

nola urte t´erdi hontan ez didazute uzten niri ezertxore ipintzen?, klaro, hain herrikoiak, herriari hitza eman behar diozute, klaro, ni izango naiz

azkenengo demonioa herri hontan, orduan ba... pues... nik ere nahi dut nire txoko bat, hori eskatzen dut, behin eta berriro nik ere nahi dut nire txoko bat, besterik ez

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Ederki, bueno... ba... besterik esateko ez baldin badago, bozkatzera pasako gara Azkena eh... venga M. Eugenia,

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.(EAJ-PNV): Azkena ez, eh? niri galdera bat egin zait eta hartu dut galdera hori erantzuteko lana, Real.....

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Barkatu, gero Emiliano nahi duzu baita ere eh? motza erantzuteko eta listo, Venga M. Eugenia,

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.(EAJ-PNV): Diccionario de la Real Academia de la Lengua, ampuloso – ampulosa, del latin medieval *ampullosus*

1.- Adjetivo, dicho del lenguaje ó del estilo y del escritor ó del orador, hinchado y redundante. Horixe da “ampuloso” eta beste... barkatu, esan dituzuen gauza guztietaz, ba.... beno ni -cortina de humo-, ni... Irainak bai; gezurrak ere bai, paranoia puntu bat edo bi azaltzen duzue zuen zeretan... erabiltzen duzue web gunea nahi duzuen modura, ez daukazue hortarako eskubiderik. Ibiltzen zarete Zumaiako Paolan egin ziren eta ez zirenetaz akordatzen, (zer nolakoa armatu zenuten eta zer nolako iskanbila eta oihuak eta marruak entzun genituen pleno areto honetan bertan hura zela eta ez zela): ez zen ailegatzen ez da txorkatileraino ere zuek orain egiten duzuenarekin eta hori... horrela da! neurtzeko bi bara edo bi neurgailu erabat desberdin erabiltzen dituzue, eta jakin, badakizue, eskerrik asko

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Emiliano, motz-motz

SR. EMILIANO CABAÑAS GONZALEZ (PSE-PSOE): Sí sólo, muy breve, solamente es por contestar un poco, que Aitor... no sé lo que pone en la página web de Eibar, seguramente que contiene un montón de -autobombo- no me extrañaría lo más mínimo, pero ningún insulto, pero ningún insulto, es muy diferente, -autobombo?- todo lo que quieras, seguro que lo tiene y no lo sé, nada más era eso.

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Bakarrik erantzungo nahiko nizuke, Emiliano, irainari dagokionez, zuk gaur hemen egin duzun interbentzioetan, gu marionetari buruz hitz egingo dugu, baina zuk bailarinari buruz hitz egin duzu, ez dakit, zein den insulto haundiago, -marioneta edo bailarina- eta bi esan duzu gezurtero batzuk garela, eta hori zure gaurko interbentzioan, hori argitu nahiko nuke, Ba... besterik gabe botatzera pasako gara, M. Eugenia PNV

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.(EAJ-PNV): Aldeko botua,

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Aldeko botua; PSOE?

SR. EMILIANO CABAÑAS GONZALEZ (PSE-PSOE): A favor,

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Aldeko botua, ARALAR-ALTERNATIBA-?

AITOR LEIZA ALBERDI JNA. (ARALAR-ALTERNATIBA): Abstenitu egingo gara,

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Abstentzioa, PILI?

PILAR ETXABE IRIONDO AND. (INDEPENDIENTEA): Aldekoa

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Aldeko botua, TALDE MISTOA?

ANDONI ETXANIZ OSA JNA. (TALDE MISTOA): Kontra

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Kontrakoa eta EAK ere kontrako botua

ERABAKI ZATIA

Aldeko botuak: 6 botu (3 EAJ-PNV; 2 PSE-PSOE; 1 INDEPENDIENTE)

Aurkako botuak: 4 botu (3 TALDE MISTOA; 1 EA)

Abstentzioak: 2 (ARALAR /ALTERNATIBA)

LEHENENGOA: UDAL WEB ORRIARI BURUZKO ESKAERA, EAJ-PNV, ALDERDI SOZIALISTEKO UDAL TALDEKIDEAK ETA PILI ETXABE ZINEGOTZIAK AURKEZTURIKO PROPOSAMENA ONARTZEA,

Beraz, onartuta geratzen da mozioa, Eskerrik asko

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkate Lehendakariak bilera amaitutzat ematen du, goizeko hamarrak hogeitabost gutxi direnean eta nik Idazkariak fede ematen dut,

Alkateak,

PARTE RESOLUTIVA

Votos a favor: 6 votos (3 EAJ-PNV; 2 PSE-PSOE; 1 INDEPENDIENTE).

Votos en contra: 4 votos (3 TALDE MIXTO; 1 EA)

Abstenciones: 2 (ARALAR /ALTERNATIBA)

PRIMERO: APROBAR LA PROPUESTA PRESENTADA POR EL GRUPO EAJ-PNV; PSE-EE Y LA CONCEJAL NO ADSCRITA PILAR ETXABE: SOLICITUD REFERENTE A LA PAGINA WEB MUNICIPAL

No habiendo más temas que tratar, el Alcalde-Presidente dá por finalizada la sesión cuando son las nueve horas treinta y cinco minutos y yo el Secretario doy fé,

Idazkariak,

